

## CEMR Konferentzia Berdintasuna, aniztasuna eta inklusioa Konferentziaren ondorioak

### Berdintasunaren, aniztasunaren eta inklusioaren inguruko ikuspegi europarra

***Guk, alkateok, hautetsitako tokiko eta eskualdeko ordezkariok eta ordezten gaituzten elkarteek, Bilbon 2018ko ekainaren 11tik 13ra bilduta egon garelarik,***

#### **Hauxe gogorarazten dugu**

1. Europaren indarraren ardatzak aniztasuna eta gure gizarteak eratzen dituzten identitate-adierazpen<sup>1</sup> ugariak dira.
2. Gatazkak eta zatiketa izan dira Europaren historiaren bereizgarriak eta, horregatik, ikuspegi komun bat artikulatu behar izan dugu, demokrazian, giza eskubideetan, askatasunean, berdintasunean eta zuzenbide-estatuan oinarrituta eraikitakoa.
3. Funtsezko gizarte-balio horien errespetuak eta sustapenak proiektu honen erdigunean jarraitzen dute.
4. Gobernu nazionalak nazioarteko eta Europako tratatu anitz sinatu eta berretsi dituzte giza eskubideak eta funtsezko askatasunak babesteko. Hala, tratatu horiek gida bat dira tokiko eta eskualdeko gobernuentzat, hain zuzen ere, berdintasuna, aniztasuna eta inklusioa sustatzeko eta bermatzeko ahaleginetan.
5. Europako Udalerrien eta Eskualdeen Kontseiluak eta horren kide-elkarteek funtsezko papera dute tokiko bizitzan emakumeen eta gizonen berdintasuna hobetzeko. Izan ere, tokiko eta eskualdeko gobernuen ekintzek herritar askoren bizitzan eragiten dute. Europako Udalerrien eta Eskualdeen Kontseiluak berriki onartu du genero-berdintasunaren aldeko azalpen-dokumentu bat eta hainbat urtetarako ekintza-plan bat, lan honekin jarraitzeko eta hori zabaltzeko konpromisoa erakusten dutenak<sup>2</sup>.
6. Emakumeek eta Gizonek Tokian Tokiko Bizimoduan izan behar duten Berdintasunerako Europako Gutuna eta horren Behatokia dira Europako udalerrietan eta eskualdeetan genero-berdintasuna lortzeko ahaleginen oinarria. Etengabeko lana egiten da emakumeen eta gizonezkoen ordezkariak eta parte-hartze orekatua sustatzeko erabakiak hartzeko prozesu demokratikoetan, bai tokiko mailan, bai eskualde mailan eta Europako Udalerrien eta Eskualdeen Kontseiluaren estatutu-organoetan ere.

#### **Hauxe behatzen dugu**

7. Konpromisoa eta erakundeen, gobernuen eta gizarte zibilaren politika eta ekintza desberdinak gorabehera, gaur egun, oraindik ere, Europan diskriminazioa dago.
8. Aurreiritziak, xenofobia eta mota guztietako diskriminazioak hertsiki lotuta daude emakumeak gizartean duen menpekotasunarekin; beraz, emakumeen eta gizonen

<sup>1</sup> AFCCRE Erakundeak proposatu zituen emendakin guztiak.

<sup>2</sup> Azalpen-dokumenturako eta ekintza-planerako esteka

arteko berdintasuna lortzetik urrun gaude eta, gainera, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna areagotzeak bestelako diskriminazioak murriztea ekar dezake.

9. Gure gizarteetan zatiketa eta bereizketa areagotzearen arriskua murrizte aldera, solidaritatean, kohesioan eta denontzako duintasunean oinarritutako neurri zorrotzak behar dira.

**Tokiko eta eskualdeko gobernuek mota guztietako diskriminazioa errotik kentzeko jarduteko duten funtsezko papera eta erantzukizuna berresten ditugu. Horregatik guztiagatik,**

### **Hauxe eskatzen dugu**

10. Boterearen eta baliabideen bidezko banaketa; gizarte-arraila txikiagoak eta herritarrak inplikatzeko berdintasunean oinarritutako gizarteak lortzeko tokiko eta eskualdeko politikak sortzeko prozesuan, gizarteko kideak eta zergadunak diren aldetik.
11. Gobernu-maila guztien eta gizarte zibilaren arteko lankidetzaren indartua, epe luzerako erabateko estrategiekin osatutakoa. Horrez gain, eremu desberdinetan gizarteratzea sustatzeko eta handitzeko gaitasuna eraiki behar da, besteak beste, arreta, hezkuntza, enplegua, osasuna, etxebizitza edo gazteria bezalako eremuetan.
12. Europako Batzordeak genero-berdintasunarekiko konpromiso politiko argia erakutsi behar du, estatu-kideen eta Europako erakundearen ekintzen esparru bihurtzen den Genero-berdintasunaren aldeko Estrategia bat ezarri.
13. Nazioarteko eta Europako antolakuntzek eta erakundeek itundutako ekintza, genero-berdintasunean, aniztasunean eta inklusioan berebiziko aurrerapena lortzeko 2030erako, hori baita Garapen Iraunkorrerako Agenda Globalaren epemuga. Zehazki, baterako ekintzak tokiko eta eskualdeko Europako gobernuekin eta beste elkarte batzuekin burutu beharko liriteke, besteak beste, Nazio Batuak Emakumeak Erakundearekin, Lankidetzaren Ekonomikorako eta Garapenerako Erakundearekin eta Europako Kontseiluko Tokiko eta Eskualdeko Agintaritzaren Kongresuarekin.
14. Garapenerako nazioarteko lankidetzaren inplikaturako tokiko zein eskualdeko Europako gobernuek babestea eta sustatzea, genero-berdintasuna, aniztasuna eta inklusioa lortzeko, sistematikoki deszentralizatutako lankidetzaren bidez, baita tresna praktikoak eta ezagutza garatzeko ere.
15. Berdintasunarekin, aniztasunarekin eta inklusioarekin lotutako gaiak txertatzea herritarrei kontsultatzeko prozesuetan Europaren etorkizunean.

### **Hauxe nahi dugu**

16. Ondorioak eta, bereziki, konferentzian izandako eztabaidak ekarpen bat izatea Europako Udalerrien eta Eskualdeen Kontseiluaren lan-egiturentzat eta inspirazio-iturria izan daitezkeen Europako Udalerrien eta Eskualdeen Kontseiluaren eta horren elkarte nazionalen ekintza zabaltzeko, batez ere 2019ko lan-programan eta aurrerantzean.
17. Nazioarteko testuinguruan, dena herriz herriko eta eskualdez eskualdeko garapenerako lankidetzaren aktiboa den PLATFORMA Tokiko eta Eskualdeko Gobernuen Europako Sareak eta Tokiko Gobernuen eta Hirien Batasunak bere potentzial guztia ustiatzen dute

CEMRBilbao2018.eu  
#CEMRBilbao2018

*More info*



*In partnership with*



*Supported by*

ikaskuntza eta kide diren antolakuntzen arteko partekatzea sustatzeko, hain zuzen ere, genero-berdintasunari, aniztasunari eta inklusioari dagokienez.



CEMRBilbao2018.eu  
#CEMRBilbao2018

*More info*



*In partnership with*



*Supported by*